

CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES, SA (CAF)

Ohiko Batzar Nagusirako deialdia

Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles SA ("**CAF**" edo "**Sozietatea**") enpresako Administrazio Kontseiluak adostutakoaren arabera, akziodun jaun-andreei Ohiko Batzar Nagusira dei egiten zaie. Aipatutako Batzarra egoitza sozialean, Beasainen (Gipuzkoa), egingo da 2017ko ekainaren 10ean, 12:00etan lehen deialdian eta, dagokionean, hurrengo egunean, toki eta ordu berean, bigarren deialdian. Batzarraren helburua jarraian zehaztuko ditugun gaien inguruan hausnarketa egitea eta erabakiak hartzea izango da.

GAI ZERRENDAA

Lehenengoa: Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles, Saren 2016ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, sozietateen talde bateratuko urteko kontuak eta kudeaketa-txostena, eta Administrazio Kontseiluaren kudeaketa-txostena aztertzea eta, dagokionean, onartzea.

Bigarrena: 2016ko ekitaldiari dagozkion emaitza aplikatzeko proposamena onartzea; hau da, akzio bakoitzeko 0,58 euroko zenbateko gordinarekin dibidenduak banatzea.

Hirugarrena: kontuen auditoreak berriz aukeratzea.

Laugarrena: Estatutu Sozialak aldatzea:

4.1. Estatutu Sozialen 13. eta 20. artikulua aldatzea eta Kapital Sozietateen Legearen 406. artikulua indarrean dagoen idatzira aplikatzea.

4.2. Estatutu Sozialen 34. artikulua aldatzea eta edukia Kontseiluko Araudiaren 5.3 artikuluekin bat egitea.

Bosgarrena: Batzar Nagusiaren Araudiko 4., 10. eta 16. artikulua aldatzea gai-zerrendako 4.1 atalaren arabera Batzarraren iritzia mendeko geratuko diren estatutu mailako aldaketetara egokitzeko, horiek onartuz gero.

Seigarrena: Kontseilarien Ordainketen Politikaren onarpena.

Zazpigarrena: Julián Gracia Palacín jauna kontseilari independente izendatzea.

Zortzigarrena: Administrazio Kontseiluan eskuordetzea, Kapital Sozietateen Legearen 297.1.b) eta 511 artikuluetan ezarritakoaren arabera, Merkataritza Erregistroko Araudiaren 319. artikulua eta gainerako araudi aplikagarria, ordezkatzeko ahalmen zehatza emanda eta akordio hau onartzen denetik bost (5) urteko epean, behin edo behin baino gehiagotan jaulkitzeko ahalmena, zuzenean edo taldeko sozietateen bidez, betebeharrak eta errenta finkoko edo beste mota batzuetako gainerako balioak

(warrantak barne), Sozietateko edo enpresako beste sozietate batzuetako akzio bihur daitezkeenak, akzionistak lehentasunez harpidetzeko eskubidea baztertzeko ahalmena barne hartuta, betiere, lehentasunezko harpidetze-eskubidea baztertzeko azken ahalmen hori, baimentzearen unean, kapital sozialaren kopuruaren % 20ko gehieneko zenbatekora mugatzen bada. Administrazio Kontseiluari emandako eskuordetzearen balio gabetzea, 2014ko ekainaren 7an egindako akziodunen Batzar Nagusiaren akordioaren arabera.

Bederatzigarrena: 2016ko ekitaldiari dagokion Kontseilarien ordainketei buruzko urteko txostenaren gaineko kontsultarako bozketa.

Hamargarrena: Administrazio Kontseiluari eskumenak eskuordetzea aurreko akordioak formalizatzeko eta exekutatzeko.

Hamaikagarrena: Bilerako akta irakurtzea eta onartzea, egoki bada.

Informazio Eskubidea

Akziodun jaun-andreek informazioa jasotzeko eskubidea erabili ahal izango dute Batzarren deialdia egiten den datatik hasita Kapitaleko Sozietateen Legeko 197. eta 520. artikuluetan aurrez ikusitako baldintzen arabera.

Kapital Sozietateen Legearen arabera eta 272, 287 eta 529 hemeretzigarren artikuluetan xedatutakoaren arabera, deialdi-iragarpen honen argitalpenetik abiatuta, akziodunek eskubidea dute berehala eta doan, helbide sozialean, Akziodunen Batzar Orokorren mende jarri behar den dokumentazio hau eskuratzeko eta aztertzeko, edo bidal diezaiotela eskatzeko (943.18.92.62 telefono-zenbakiaren bidez edo posta elektronikoko honetan: accionistas@caf.net):

- Gai-zerrendako lehen eta bigarren puntuei dagokienez: 2016ko ekitaldiari dagozkion Urteko Kontuak (balantzea, galdu-irabazien kontua, ekitaldiaren ondare garbian izandako aldaketak islatzen dituen egoera, efektibo fluxuen egoera eta memoria), Sozietatearen emaitzen aplikazio-proposamena, kudeaketa-txostena eta kontu-auditoreen txostena. CAF taldearen kontu bateratuen kasuan, haiek osatzen dituzten dokumentuak ere eskuratu ahal izango dituzte taldeko kide diren sozietateetako akziodunek, baita taldearen kudeaketa-txostena eta auditoria-txostena ere.
- Gai-zerrendako laugarren eta bosgarren puntuei dagokienez: Administrazio Kontseiluaren justifikazio-txostena Estatutu Sozialen eta Sozietatearen Akziodunen Batzar Orokorreko Araudiaren aldaketen inguruan, baita proposatutako aldaketen testu osoa ere.
- Gai-zerrendako seigarren puntuari dagokionez: Administrazio Kontseiluak eragindako proposamena eta Izendapen eta Ordainsarien Batzordeak egindako justifikazio-txostena, Ordainsarien Politika onartzeko.
- Gai-zerrendako zortzigarren puntuari dagokionez: Gai-zerrenda honetan sartutako Batzordeko ordezkariaren proposamenaren inguruko Administrazio Kontseiluaren txostena, baita proposamen horretako testu osoa ere.

Aurreko dokumentu guztiak, eta Akziodunen Batzar Orokorrari dagokion gainerako informazioa, sozietatearen webgunean ere kontsulta daiteke (www.caf.net), osorik eta etenik gabe Batzar Orokorra egin arte eta, zehatzago honako hauek:

- Deialdi-iragarpen hau.
- Gai-zerrendako puntu bakoitzarekin lotuta Akziodunen Batzar Orokorraren onarpena jasotzeko aurkeztuko diren akordio-proposamenen testu osoa.
- Gai-zerrendako zazpigarren puntuari dagokionez: Akziodunen Batzar Orokorrean izendapena proposatuko den kontseilariaren informazioa, haren izen-abizenak, Curriculum Vitae eta kategoria, Izendapenen eta Ordainsarien Batzordeko izendapen-proposamena eta Administrazio Kontseiluaren justifikazio-txostena, proposatutako hautagaiaren kompetentzia, esperientzia eta meritua baloratzeko.
- Gai-zerrendako bederatzigarren puntuari dagokionez: 2016ko ekitaldiari dagokion Kontseilarien Ordainsariari buruzko Urteko Txostenaren inguruan kontsultarako bozketa egingo da.
- Deialdiaren datan bozketarako eskubide eta akzio kopuru osoari buruzko informazioa.
- 2016ko ekitaldiari dagokion Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostena.
- 2016ko ekitaldiari dagokion Auditorearen Independentziaren Txostena.
- 2016ko ekitaldiari dagokion Erantzukizun Sozial Korporatiboaren Txostena.
- Asistentzia txartelaren eredia eta bozketa ordezkari bidez ordezteko formularioa.

Batzar Orokorra egiteko aurrez ikusitako aurreko bosgarren egunera arte, akziodunek beharrezko iruditutako informazioak edo argibideak eska ditzakete Gai-zerrendan jasotako gaien inguruan, edo idatziz egin ditzakete egoki iruditutako galderak. Horrez gain, akziodunek administratzaileei idatziz eta epe beraren barruan edo Batzarra egin bitartean ahoz eskatu ahal izango dizkiete azken batzar orokorra egin zenetik Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalari Sozietateak emandako eta publikoaren eskura dagoen informazioari buruz eta auditorearen txostenari buruz egoki irizitako argibideak. Horri dagokionez, informazio-eskaerak Akziodunen eta Inbertsiogileen Arretarako Bulegora bidali beharko dira, helbide sozialean, fax bidez (943.18.92.26 zenbakira), edo posta elektronikoz, helbide honetara: accionistas@caf.net.

Akziodunaren identifikazio-berme egokiak zaintzeko, informazio-eskaeran izen-abizenak adierazi beharko ditu, eta eskatzailearen akziodun dela egiaztatzen duten dokumentuen kopia erantsi beharko du. Pertsona juridikoa izanez gero, akziodunaren ordezkari gisa, informazio-eskubidea erabiltzen ari den pertsona fisikoaren ordezkari gaitasunak ziurtatzen dituen dokumentuen kopia ere gehitu beharko da.

Batzar Orokorrean parte hartzeko eskubidea

Parte hartzeko eskubidea gauzatze bidean, Akziodunei gogoratu nahi diegu Estatutu Sozialetako 7 eta 21 artikuluetan ezarritakoari jarraiki, parte hartzeko eskubidea gutxienez mila (1.000) akzioren titular direla ziurtatzen duten akziodunek izango dutela, Legeak ezarritakoari jarraiki. Gutxiagoren jabe diren akziodunak taldetan bildu edo akziodun baten bidez ordezkatzeko aukera izango dute, biltzean mila (1.000) akzio edo gehiago batuz gero.

Akziodunen Batzar Orokorrean eta Estatutuetan adierazitakoari jarraiki, gutxienez Batzarra egin baino bost (5) egun lehenago kontuan eginiko oharretako kontu erregistroan akzioak norberaren izenean dituztenek soilik parte hartu ahal izango dute.

Batzarrean parte hartzeko, akziodunek akzioak gordetzen dizkien edo Erakundeak akziodunei eskaintzen dien txartela beharko dute, gainera, korporazioaren web orrian agertuko da etengabe (www.caf.net). Era berean, Sociedad de Gestión de los Sistemas de Registro, Compensación y Liquidación de Valores, S.A. Unipersonal (Iberclear) sozietatean parte hartzen duten zenbait erakundek igorritako ziurtagiria erabili ahal izango da.

Sozietateak akziodunei esleitutako txartelak erabilera-arauak eta gomendioak biltzen ditu.

Ordezkapen-eskubidea

Kapital Sozietateen Legearen Estatutu Sozialetako 21 eta 22 artikuluetan, Akziodunen Batzar Orokorreko Araudiko 9 eta 12 artikuluetan nahiz Sozietateak emandako boto-ordezkapenerako inprimakiko arau eta jarraibideetan ezarritako salbuespenei jarraiki, Batzarrean parte hartu ezin edo nahi ez dutenek, beste norbaitek ordezkatzeko eskubidea dute, nahiz eta akziodun ez izan.

Ordezkapena akzioak gordetzen dituen sozietateak emandako boto ordezkapenerako inprimakiaren bidez edo Sozietateak akziodunei eskaintzen dienaren bidez egin beharko da. Hona Sozietateak etengabe eskuragarri jartzen duen inprimakiaren web orrirako esteka (www.caf.net).

Sozietateak akziodunei eskaintzen dien boto-ordezkapenerako inprimakiak ditu erabilerarako arauak eta jarraibideak. Ordezkapenerako eta parte hartzeko araudi orokorra Elkartearen web orrian dago akziodunen eskuragarri, www.caf.net.

Gai-zerrendan kontuan izateko gaiak sartzeko eskubidea eta hitzarmen proposamenak aurkeztekoa

Gutxienez ehuneko hiru (% 3) ordezkatzeko duten akziodunek gai-zerrendan gai bat edo gehiago txertatzeko Akziodunen Batzar Orokorreko deialdiaren osagarria argitaratzeko edo justifikatutako hitzarmen proposamena egiteko eskaera-eskubidea izango dute. Eskubide hau ziurtagiri frogagarriaren bidez egin beharko da – Administrazio Kontseiluaren Idazkariaren izenean eginez- eta helbide sozialean jaso beharko da deialdi hau argitaratu ondorengo bost (5) egunean.

Deialdiaren osagarria, Batzarraren lehen deialdiarekiko gutxienez hamabost (15) eguneko aurrerapenarekin argitaratuko da.

Ehuneko hori bera ordezkatzeko duten akziodunek, aurrez adierazitako epean eta ziurtagiria helbide sozialera bidaliz, deitutako Batzarrean txertatutako edo txertatzeko gaien inguruko hitzarmenerako proposamen oinarrituak aurkeztu ahal izango dituzte.

Akziodunen Foroa

Sozietateak web-orrian (www.caf.net) Batzar Orokor honetako Akziodunen Foro Elektronikoa ahalbidetu da. Dagokien ziurtagirien bidez, banako akziodunek nahiz elkarte boluntarioek sartzeko aukera izango dute, indarrean den araudiaren inguruko hitzarmena osatuz Batzarraren aurretik elkarren arteko komunikazioa errazteko. Akziodunen Foro Elektronikoaren araudia ere Sozietatearen web-orrian dago eskuragarri (www.caf.net).

Informazio orokorra

- Ziur aski Batzarra lehen deialdian egingo da.
- Dokumentazioa doan bidaltzeko, jasotzeko edo aztertzeko informaziorik, informazio gehigarrikerik edo deialdi eta Batzarraren inguruko beste informaziorik nahi izanez gero, akziodunek Akziodunen eta Inbertsiogileen Arretarako Bulegora jo dezakete bide hauek baliatuz:
 1. Telefonoa: 943.18.92.62, lanegun eta lan ordutegietan
 2. Faxe: 943.18.92.26
 3. Posta elektronikoa: accionistas@caf.net

Beasainen, 2017ko maiatzaren 5ean.

**Marta Baztarrika Lizarbe anderea
Administrazio Kontseiluko idazkari kontseilaria**